

Eskaintzaren erreferentzia / Ref. de la oferta: Lea-Dis-118	UPV/EHUko Enplegu Foroa Foro de Empleo de la UPV/EHU	
	BIZKAIKO CAMPUSA	

Enpresa-Erakundea / Empresa- Entidad

Leartiker

Lanpostua / Puesto:

Diseinu eta fabrikazioko ikerlaria

Lantokia / Lugar de trabajo:

MARKINA-XEMEIN (Bizkaia)

Egin beharreko zereginak edo eginkizunak / Tareas o funciones a realizar:

Hazten jarraitzen dugu eta Leartikerreko Polimeroen Teknologia lantaldera diseinu eta fabrikatzaile ikertzaile gisa batzeko pertsona bat bilatzen ari gara, Garraio Jasangarriko arloan hain zuzen ere.

Espezializazio honetan, egitura polimeriko arinak, fidagarriak eta isilak garatzen ditugu, eta digitalizazio-tekniken bidez haien portaera aurreikusten dugu.

Hurrengo honetaz arduratuko zara:

Material polimerikoen modelizazio aurreratuan, piezen eta fabrikazio-prozesuen egitura-simulazioan eta produktuaren garapenean oinarritutako espezializazioaren parte izatea, haren kontzepzioetik fabrikaziora.

Ikerketarako aukera berriak identifikatzea eta bilatzea.

Barneko eta kanpoko I+G+B proiektuen kudeaketa teknikoan eta ekonomikoan laguntzea.

Beste proiektu batzuetan lan egitea, nazioan eta nazioarteko lankidetzan..

Bezeroekin eta beste erakunde batzuekin harremanak izatea proiektuak lortzeko.

Eskatzen diren betekizunak / Requisitos exigidos:

Bilatzen ari garen pertsona izango zara baldin eta...

Polimeroen ingeniartzan, ingeniartzita mekanikoan, ingeniartzita industrialean, matematikan edo fisikan graduatua bazara edo masterra baduzu

Positiboki baloratuko da aurretik polimeroen teknologiarekin lotutako antzeko lanpostuetan esperientzia profesionala izatea.

Ingelesa eta Euskara menperatzea, ahoz zein idatziz. Beste hizkuntza batzuk ere menperatzea positiboki baloratuko da!

Hala ere, baldintza guzti hauek betetzen ez badituzu, baina Leartikerren garatzeko gogoia eta interesa baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan!

Eskaintzen dena / Se ofrece:

Guzti honekin hurrengoia lortuko duzu:

Eskaintzaren erreferentzia / Ref. de la oferta: Lea-Dis- 118	UPV/EHUko Enplegu Foroa Foro de Empleo de la UPV/EHU BIZKAIKO CAMPUSA	 <small>amari la erabil arazi</small> Universidad del Pais Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
---	--	---

I+G+b sektorean profesionalki garatzea, merkatuan eskari handia duten berrikuntza-proiektuen bidez.

Produktu eta digitalizazio-metodologiaren garapenean zure ezagutza zabaltzea, material polimerikoen modelizazioa eta simulazioa konbinatuz.

Leartikerren bezero diren beste erakunde eta enpresa batzuen errealitatea eta beharrak ezagutzea, hainbat proiektuetan parte hartuz.

Zure Garapen Planaren eta Karrera Planari lotutako banakako ekarpenaren bidez, gure beharretara egokitzeko pertsonalizatu izango duzun hasierako prestakuntza bat.

Gurekin garatzearen onurak:

Erakundearen erabakiak hartzen parte hartzen duen talde profesional gazte, proaktibo eta dinamiko bateko kide izango zara.

Kontratu mugagabea izango duzu astelehenetik ostiralera, ordutegi eta egutegi malguarekin.

Telelana urteko markoaren % 30era arte egin ahal izango duzu.

Guztionezko proiektu kooperatibo baten parte izango zara.

Gure kultura: LEARTIKER ZIRRARA

#PertsonentzakoTeknologia

Inplikazioa, konfiantza, zerbitzurako orientazioa, positibismoa eta zorroztasun zientifikoa gailentzen diren kultura baten parte izango zara.

Berrikuntza eredu ireki batean oinarrituta, Leartiker proiektua elkarlanean eraiki genuen, ezagutza balio erantsi bihurtuz, dibertsifikazio-prozesuak erraztuz eta lanpostu berriak sortuz.

Leartiker proiektuaren kide izateaz harro dauden pertsonen taldea gara. Sentitzen al duzu LEARTIKER ZIRRARA?